

## 2.1. Komunitate bat egituratzeko hizkuntza: *elkar, lagun, ote-ete,ei-omen, -o hurbila* Agurtza eta Aintzane Lazkano Lizundia



Agurtza Lazkano



Aintzane Lazkano

### 2.1. Nor

#### a) Ikasketak / Studies / Estudios

---

- Agurtza euskera-irakaslea izan da HABEn hamar urtez eta Euskal Filologia ikasketak egin ditu. Aintzane Gipuzkoako Foru Aldundian egiten du lan.
- Biak Euskeraren Jatorriaren elkarteko kideak dira eta etimologiagintzan dihardute, euskerazkoak zein inguruko hizkuntzen hitzetan ikertzen dutelarik.

#### b) Argitalpenak / Publications / Publicaciones

---

- Gernikan egindako Euskeraren Jatorriaren IX. Biltzarreko ponentzia: *Gernikako Arbolaren esanahia eta sinbologia*
- Zaragozan egindako I. eta II. Iberiarren Jardunaldietan aurkeztutako ponentziak:
  - *El concepto espacio-temporal BOR presente en numerosas lenguas*
  - *ABA ¿ADN mitocondrial?*

#### c) Harremanetarako / Contac / Contacto

---

- agurtzal[abildua]hotmail.com

### 2.2. Laburpena / Abstract / Resumen

#### a) Laburpena. Komunitate bat egituratzeko hizkuntza: *elkar, lagun, ote-ete, ei-omen, “o” hurbila*

---

Hizkuntzek ere beren egituran, euren sakoneko filosofian badaramatzate oinarrizko mezuak iltzaturik. Hizkuntza bakoitzaren historian zehar garatutako kultura eta jakintzak sortutako mezuak. Euren barnetan txertatutakoak eta ondorioz beren hizlarien izaeran eragina izaten dutenak. Beraz, joan-etorriko bidaia izango litzateke hau: gure pentsakerak, gure kosmo-

ikuskerak, geure hizkuntza osatu eta garatuko luke, baita alderantzik ere, hau da, hizkuntzak gure pentsakera eta gure kosmo-ikuskerara ere eraikiko luke.

Kultura eta jakintza horretan bizitzaren arlo guztiak sartzen dira, jakina, erlijioa, filosofia, mitoa, zientzia, etab. Euskeraren kasuan, are gehiago, ze antzinatik omen dator eta bere transmisioa ahozkoa izan da orain dela gutxi arte. Beraz, aipatu jakintzok gordetzeko izan duen euskarria hizkuntza bera izan da, hots, euskera.

Ponentzian erro eta adierazpen asko jarri dugu adibide gisa: une oro baietza bilatu nahi izatea, komunitate zentzua etengabe indartzea, nikeriak (ego-ak) baztertzea, ezezkortasuna sahiestea, ikusi ez dugunari zalantza maila bat jartzea, kasu batzutan eskuzabala izan behar izatea, beste herritarrak laguntzat hartzea...

Amaieran beste gai bat ere jorratuko da eta hor zenbakien ikuspegi espaziala, aditzaren kokapenaren garrantzia eta abar landuko dira.

### **b) Agurtza eta Aintzane Lazkano: Una lengua para estructurar una comunidad: *elkar, lagun, ote-ei-omen, "o" próximo ...***

---

Las lenguas llevan arraigadas en su estructura interna los mensajes básicos que conforman su profunda filosofía, los mensajes que la cultura y el conocimiento han ido desarrollándose a través de la historia de cada lengua. Están guardadas en sus entrañas e influyen en la forma de ser de sus hablantes. Es por tanto un viaje de ida y vuelta: por una lado nuestro pensamiento y cosmovisión habrían estructurado y desarrollado nuestra lengua, y por otra parte, la lengua también ha influido en nuestro pensamiento y forma de ver el mundo.

En dicha cultura y conocimiento se incluyen todas las facetas de la vida, es decir, la religión, la filosofía, el mito, la ciencia, etc. En el caso del euskera más todavía porque es una lengua muy antigua y su transmisión ha sido oral. Por tanto, la lengua ha sido el soporte a través de la cual se han ido transmitiendo todos los conocimientos.

En la ponencia hemos puesto muchas raíces y expresiones a modo de ejemplo: raíces que buscan la positividad en todo momento, el refuerzo del vínculo social, la disminución la importancia de la visión personal, el no dar rotundas negativas, dar cierto nivel de duda a aquello que no hayamos visto, ser generosos en algunos temas, ayudar al resto de nuestras vecinas y vecinos, etc.

Al final también se ha explicado el posible significado espacial de los números y la importancia de que el verbo vaya al final de la frase.

### **c) Abstract: A language to structure a community: *elkar, lagun, ote-ei-omen, "o" cols...***

---

Languages contain essential messages that dwell in their structure, in their deep philosophy. These messages are created by the culture and knowledge developed within each language's history. They are rooted in the language and thus they have an effect upon those who speak it. Therefore, this would be a round trip: the language would be affected by our thoughts, our view of the cosmos, etc. but it would also be true the other way round, that is to say, the language would also build our thinking and our view of the cosmos.

All the fields of life are included in that culture and knowledge: religion, philosophy, myths, science, etc. In Basque's case, even more, since it's very ancient and its transmission has been oral up to a short while ago. Hence, the base on which the mentioned fields of knowledge have been kept was the language itself, that is to say, Basque.

In our presentation, we have given many examples of roots and expressions: to always try to seek a 'yes', to constantly strengthen the community sense, to blur one's self's view, not to

give flat 'no's, to be a bit sceptical about what we haven't seen, to be generous when needed, to treat fellow citizens as "lagunak" (friends)...

In the end we will work on another subject, in which the spatial vision of numbers, the importance of the verb's positioning and so on will be discussed.

## 2.3. Txostena / Communication / Ponencia

### a) Sarrera

Komunikazioan, hitz egiterakoan oso garrantzitsua da aurrean daukagun berbalagunari zuzendutako diskurtsoa egokia izatea eta modu onean adieraztea. Denok dakigu, gure baitan sentitzen dugulako, zer nolako eragina izaten duen gauzak modu batean edo bestean jasotzeak. Beraz, gure erantzuna ere, horren araberakoa izaten da. Guzti hau norberaren erabaki bati lotuta dago, guk hitz egiterakoan hartzen dugun erabakiari hain zuzen ere.

Hortaz aparte hizkuntzek beren egituran, euren sakoneko filosofian badaramatzate oinarrizko mezuak iltzaturik. Hizkuntza bakoitzaren historian zehar garatutako kultura eta jakintzak sortutako mezuak. Beren barnetan txertatutakoak eta ondorioz euren hizlarien izaeran eragina izaten dutenak. Orduan joan-etorriko bidaiak izango litzateke hau; gure pentsakerak, gure kosmo-ikuskerak, geure hizkuntza osatu eta garatuko luke baina alderantziz ere, hau da, hizkuntzak gure pentsakera eta gure kosmo-ikuskerak ere eraikiko luke.

Kultura eta jakintza horretan bizitzaren arlo guztiak sartzen dira, jakina, erlijioa, filosofia, mitoa, zientzia, etab. Euskararen kasuan, are gehiago, ze antzinatik omen dator eta bere transmisioa ahozkoa izan da orain dela gutxi arte, beraz, aipatu jakintzok gordetzeko izan duten euskarria hizkuntza bera izan da, hots, euskera bera.

Goazen orain guzti hau pizkatean aztertzeraz:

Hainbat adituk esaten du hizkuntzak gure izaeran eragina duela eta logikoa da. Komunikatzeko era egokia bada, guregan ondorio egokiak izango ditu eta gure erantzuna horren aurrean egokia izango baita. Zentzu honetan euskerak badu hainbat ezaugarri gure nortasunean eragina omen dutenak, hemen dituzue adibide batzuk.

### b) Baikortasuna adierazteko BA erroa: BAIT

Psikologian komunikazio egokia izateko baikortasuna erabili behar dela esaten digute. Euskeraz partikula bat daukagu hori behin eta berriro gauzatuko lukeena, **bait** partikula hain zuzen ere.

*Ez naiz etxetik aterako, zangoa bihurritu **baitut***

*Ez omen **baita** denborarik galtzeko, horra zertarako etorri naizen*

*Badator ordua, guztiok zein bere aldera banatuko **baitzarete***

*Nolakoa **baita** idazlea, halakoak bere obrak*

*Damutuko zaizu, zeren orain eskaintzen zaizun aukera **ez baituzu** berriz izango:*

*Hain nengoen goxo ohean, **ez bainintzen** eskolara joan:*

*Ez naiz joango, **ez baitut** gogorik:*

*Hain zen txikia, non **ez bainuen** ikusi:*

*Sinets egidazu, zeren egia **baita**.*

Konturatu zaitetzte esaldi batzuk ezeztatu egiten dutela eta hala ere **bait** daramatela.

Baina gure **bait** partikula ez du ematen bakarrik dagoenik zeren **BA** erroak berak ere, beste adibide batzuk ematen dizkigu baikortasunari lotuta. Zergatik baikortasunari lotuta? **Ba, batasun, elkartasun, adostasun eta armoniarekin zerikusia dutelako.**

### c) Baikortasuna adierazteko BA erroa: hitz egiteko esaldi lokailua

---

Ahoz esaten badugu:

*Ba, agertu zan da ba, zer eingotzeu ba? Onartu ein bihar!*

Hitz egiteko euskarri bat da baina horretaz gain guk uste dugu geure buruan lehen aipatutako ideia horiek ezartzeko ere badela eta berdin aditz trinkoan jartzen dugun ba hori (**banoa** adibidez) etab.

### d) Baikortasuna adierazteko BA erroa: BAT, BAT EGIN, BAT ETORRI

---

*Zurekin batera joango naiz hondartzara eta ez zurekin joango naiz hondartzara gazteleraz bezala.*

*Harekin bat egin zuen.*

*Zurekin bat nator.*

Orain arte komentatutakoarekin **bat** etorriko lirateke adibidez ondorengo hitz hauek ere:

*Bakar, batu, bai, bake, bage/gabe (kontu metafisikoengatik), baratza (crómlech), balazta, bare, baska eta bapo (jateak ekartzen duen bakearekin lotuta), barea (animalia), bale (ados), balioa, balea, baba (adur, ondo izatearekin lotuta), babesa eta abar.*

### e) Elkartzeko “o” barruragarria (inklusiboa)

---

*Arantxa, Itziar, Kepa eta laurok etorri gara*

Hemen ikusi behar dugu zenbatze hutsarekin ere, hitzak berak esaten digun bezala (zen**batze**), jendea eta dena bildu eta **batu** egiten dugula, ez gara solte eta ahul geratzen zenbatzerakoan, bat egiten dugu, gure **baitan** –**BA**- erroaren bitartez ezartzen dugun ideia da hau eta gauza **positiboa, ona**, eta **baikorra** dela. Gainera borobila itxi egiten dugu eta kopurua burutu; gehituaz, borobilaren bidez, laurok bat egin. Orduan guk uste dugu euskeraz bat egitea borobila (borobiltasuna) lortzea dela. Psikologikoki borobilaren barruan, taldearen barruan geratzen gara: babestuta. Horregatik esaten dugu laurok eta ez laurak. Gauzak borobil (perfektu) ateratzea ona da ezta?



Sales Santos Vera eta Itziar Madina Elgezabalen **Comunidades sin estado en la montaña vasca**. Liburu honetan beste gauza askoren artean honako hau esaten digute:

*LLegados a este punto, y si tal como señalaba Mircea Eliade (1985) todo simbolismo fue originalmente simbolismo religioso, pensamos poder probar que el símbolo religioso de los primitivos pueblos de la montaña Vasca fue el círculo.*

*Eliade considera que el círculo es símbolo sagrado del eterno retorno, de la eternidad de lo infinito, de lo absoluto. Representa una apuesta por el porvenir, por aquello que está hecho de **repetición** y no de diferencia, y que la tierra, el cielo y los dioses velarán para conseguir que eternamente retorne.*

*El círculo, símbolo geométrico, es probablemente el más importante y el más difundido en multitud de civilizaciones. Su forma viene dada por la imagen del Sol y la Luna. Fue siempre considerado por todos los pueblos antiguos como la forma geométrica perfecta, y para algunos era la imagen misma del ser supremo, del gran todo o del absoluto.*

#### **f) Elkartzeko “gure” barruragarria**

---

Ikusten dugun moduan gure -O- barruragarri honek bere garrantzia dauka eta beste ikuspuntu batzuetatik ere ikus daiteke, adibidez:

Andrés Ortiz Osesek bere Hermeneutica cultural y memorias antropológicas liburuan esaten digu:

*El propio lenguaje euskaro coexiste como sistema <<holográfico>> (tridimensional) en el que se observa un plural inclusivo-colectivo–congregacionismo- frente al individualismo lingüístico moderno. Un tal carácter ritual del lenguaje recibe el nombre de <<holopsychosis>> o psicología comunal: tras la <<pasividad>> del euskera y su carácter asuntivo-totalizador subyace el <<alma>> colectiva del grupo, representado mitológicamente por Mari como Themis o conciencia comunal proyectada. (Themis=ley de la naturaleza)*

Horregatik esaten ditugu adibidez:

*Ene! azaldu da gure Arantxa be, saltoka etorri zaigu.*

*Eta ez: Ene! azaldu da Arantxa be, saltoka etorri da.*

*Gure Amak esaten zuen hori!*

*Eta ez: Nire amak esaten zuen hori!*

#### **g) Elkartzeko biribilaren ideologia**

---

Guk hizkuntzan islatuta ikusten duguna beste batzuk Euskal Herriko sasoi bateko gizarte-antolakuntzan ere ikusi dute adibidez:

Lehen aipatutako liburuan -Comunidades sin estado en la montaña vasca- honako hau ere esaten digute:

*“El primer capítulo trata de responder a ¿cómo pudieron ser las comunidades sin Estado de la Montaña Vasca? ¿Cómo podrían haber funcionado? Nos lleva hasta la provincia de Zuberoa, en el noreste de los países vascos o euskal herriak. Allí existió hasta finales del siglo XX una organización social comunitaria, basada en la ayuda mutua y que rechazaba el poder o la jerarquización. La analizó la antropóloga inglesa Sandra Ott, en su libro **The circle of mountains: a Basque Shepherding Community**.*

*La descripción que Ott realizó de la sociedad pastoril del Pueblo de Santa Grazi nos ha permitido extrapolar hacia la existencia de una ideología del círculo”. Por un lado, los habitantes de Santa Grazi se consideran parte del “üngürüa” o círculo orográfico que rodea su pueblo montaños. Por otro, basándose en la similitud del entorno, instauran una organización social completa en base al círculo y la alternancia. Ello crea una sociedad en la que no existe superioridad de ninguno de sus miembros sobre otro.*

*El hombre y la mujer son esencialmente reconocidos distintos pero tratados como iguales, de manera simétrica. Así mismo tienen valores simétricos las personas y su entorno natural, la vivienda familiar y la chabola de pastores situada en la zona de trashumancia...*

*Trataremos de probar que el símbolo circular resuena en sintonía con las leyendas, con los mitos y con los ritos que antaño regían y de los que hoy día algunos aún se mantienen en la Montaña Vasca. Pensamos que la ideología del círculo nos permite caracterizar las sociedades vascas primitivas, anteriores a la cristianización y a la toma generalizada del poder.*

*“El mundo simbólico de la creencia primitiva en el círculo **rechaza el conflicto**, pues este crea desunión y acarrea la destrucción de la comunidad. Vemos que para que existan creencias comunes es necesario que las personas conformen los conocimientos comunes citados por Dürkheim, fundados sobre mitos y tabúes que hablan sobre ellos mismos, su comunidad y sobre el entorno en que viven. ....Es imprescindible el sentirse parte del círculo como lo hacen los habitantes de Santa Grazi,....”*

#### **h) Elkartzeko “zuk eta biok”**

---

Beste adibide bat:

*Ama eta biok joango gara.*

Adibide hau bestea bezalakoa da *Arantxa, Itziar, Kepa eta laurok* baina aipatzen badugu da bi lagun izanda ere berdin gertatzen dela azpimarratzeko, hau da, bi lagun izanda ere zenbaketa egin, batuketa egin eta borobila itxi egiten dela.



Honek edukiko luke zerikusia **ELKAR** partikularekin eta baita zenbakiekin ere, baina hau aurrerago aztertuko dugu.

#### **i) Elkartzeko ezetz biribilik ez ematea: *izan edo izan ez, inor edo inor ez, inoiz edo inoiz ez, inon edo inon ez***

---

*Izena duen guztia **ba-da** (aitortzen duzu izena duen guztia badela, “bai dela”); onerako edo txarrerako.*

Euskeraz ez dago hitz jakin bat erderazko “nadie” edo “nada” esateko: “Inor ez” izateko, “inor” izan beharra dago lehenengo, bestela ez genuke jakingo “inor” ez dela. Beraz, beti baieztatzen duzu zerbait dagoela, gustukoa **bada** edo ez **bada**.

Azpimarratutako hitz hauetan ere gertatzen da: **bada** edo ez **bada** zeren eta erdarari begiratzen badiogu, horrela ematen du baita: “es” o “no es” esaten denean, baina kontutan eduki behar dugu, euskeraz, **ba** aurrizkia eramaten duela kasu bietan. Baieztatu egiten du **da**

hori, hau da, **izana** bera, orduan, erderaz literalki esango bagenu “**si** es y **no si** es” izango litzateke.

Aitorpen inplizitu honek ez digu lagatzen ezer deuseztatzen eta ondorioz onartu behar dugu nahi eta nahiez. Pertsona dela, gauza bat dela edo dena delakoa.

Erderaz posible bada esatea “Don nadie bat dela” euskeraz ezin da esan zeren beti baita inor edo nor**bait**.

#### **j) Bizikidetzarako berbak: *harreman, omen-ei, ote-ete, al, ohi, elkar***

---

##### **HARREMAN**

Hartu eta eman. Elkarren arteko konturen bat dagoenean, hitzak berak adierazten duen moduan aipatu kontu honek, parekotasun bat izan behar du printzipioz edo funtsean, hartu-emon bat eta ez hartu bakarrik edo emon bakarrik, oreka egon behar du. “Armonia” hitza be euskerazko hartu-emonetik datorrela komentatzen du Felix Zubiagak.



##### **OMEN, EI**

Zeozertaz hitz egiterakoan, lekuko izan ez bagara ez gara ausartzen gertatutakoa edo guri kontatu digutena ziurtatzera. Partikula hau erabiltzeak zentzudun, zuhur eta arduratsuak bihurtzen gaituela dirudi, esango genuke kontuz ibiltzeko mezua ematen digula.

##### **OTE/ETE**

Esandakoak zalantzan jartzeko partikula. Honek ere laguntzen digu zuhurrak izaten, gauzak kategorikoki ziurtzat ez jotzen, beraz, eten gabeko ikaste prozesuan aurrera joaten.

##### **AL**

Galdetzeko partikula, jakin-minari laguntzekoa, beti aurrera jotzeko bultzatzen gaituena berriz ere, galdera bera indartzekoa.

##### **OHI**

Ohiturari garrantzia ematen diola eta indartu egin nahi duela iruditzen zaigu. Beti ere ohiturek transmititzen duten jakintza eta eskarmentua kontutan hartuta. Beste kasu batek ere, legea betetzearena, baieztatu egiten digu esandakoa, hau da, legeak ohituretan oinarrituta daudela, geroago aztertuko dugu.

##### **ELKAR**

*Elkarlan, elkartasun, elkarri, elkargune, elkartu, elkarrekin...* etab. Hitz hau garrantzitsua da gure hizkuntzan, lagun bat baino gehiagoren artean sortzen den zerbait da, identitate propioa dauka, izaki gisa deklinatzen da, hirugarren pertsonan hain zuzen ere. Erderatik itzuli nahi badugu, ezin dugu, zeren “mutuo” moduan itzultzen da eta honek norabide biko zentzua dauka, ni zuregana eta zu niregana edo nik zuri eta zuk niri, adibidez: “Elkarren” ondoan esaten badugu ez doa inor inorengana, inor ez dago inoren menpe, “elkarren ondoan erabiltzen dugunean denok gaude maila berdinean, puntu berdinean (borobiltasuna berriz

ere), elkarren ondoan. Ez gara ni, zu edo hura, **Elkar gara. Guk sortzen dugulako Elkar.**

Hau dela eta aipatutako *Comunidades sin estado en la montaña vasca* liburuan honako hau esaten digute: "...Propotkin ya lo expuso de manera más prosaica en *El apoyo mutuo: el individuo no sabría sobrevivir en su entorno natural sin la solidaridad comunitaria*. Y esta se manifiesta desde los siglos de los siglos en la *Montaña Vasca*, en forma de relaciones sociales cuya reciprocidad es fundamental. La ayuda entre "lehen auzoa" o "primeros vecinos", que acompaña el leit-motiv de "Gaur zuri, bihar neri", "Hoy por ti, mañana por mí".

Dena den adierazpen honek ez du guztiz ematen elkarren zentzua, hain zuzen ere, erderaz ez dagoelako hitzik elkarrek daukan esanahi guztia adierazteko.

Ez dakigu gainontzeko hizkuntzetan horrelakorik badagoen ala ez, guri oso bitxia eta esanguratsua iruditzen zaigu. Hala ere, adibide hau aurkitu dugu antzinako zibilizazio baten hizkuntzan:

*"La morfología de los verbos hurritas es muy compleja, ..... Algunos sufijos son: -an(n) (causativo), -ant (probablemente aplicativo) y -ukar (reciprocidad). (google, los hurritas) Google-en – Los hurritas – idioma hurrita*

Elkarren arteko zerbaitekin eta hirugarren pertsonaren kontu honekin beste adibide bitxi bat daukagu. Ume txikiek beren lehenengo berbekin hasten direnean euren burua izendatzeko eta gainontzeko guztiok beraiei buruz ari garenean, hirugarren pertsonan aritzen gara, zuzenean izendatu barik, adibidez: non zaude? galdetzerakoan: non dago umea? esaten dugu, eta eurak: umea dago...., erantzuten dute euren buruaz dihardutenean.

Eduki lezake honek harremanik gure Elkarrekin? Ba gure ustez bai, zeren umeak izaki autonomoaren kontzientziarik ez duen bitartean, eta bere burua izendatzen hasten ez den bitartean, beste bien arteko erlazioaren emaitza izaten jarraitzen baitu eta hirugarren pertsonan deklinatzen da-dugu. Gure **Elkar** moduan.

Eta ELKARREK buru belarri sartzen gaitu auzolanaren munduan, euskaldunokin zerikusi estua duen lan egiteko modu horrekin, **bat** egite horrekin.

**Los gigantes y el misterio de los orígenes.** Liburu honetan Louis Carpentierrek, honako hau dinosku:

*...¿Quién era Osiris? No lo sabemos con exactitud. Se le tenía por un dios, pero nosotros tenemos un modo «latino» de concebir a un dios, que probablemente no significaba nada para los egipcios. Era él quien acogía a los muertos y les mostraba el camino de las islas bienaventuradas, hacia el Occidente, tras haberlos «pesado». Por otra parte, acompañaba también a ciertos vivos «portadores» **del Osiris y asimilados a éste.***

*En el caso del Faraón, y **por ser éste Osiris, o portador del Osiris**, estaba «habilitado» para dirigir al pueblo egipcio.*

*Me gustaría aventurar una hipótesis que es, al propio tiempo, una explicación. ¿No sería el fenómeno «**Osiris**» una forma superior de gregarismo?*

*Esto exige algunas aclaraciones. Empecemos por la base. Un animal solo, solitario, es un individuo que tiene sus cualidades propias, cualesquiera que sean.*

*Cuando los animales se agrupan y forman una horda, manada o clan, se produce el fenómeno denominado «gregarismo» y que parece puramente instintivo. Se crea una entidad «rebaño», «horda» o «clan» que integra a cada animal como a una célula de*



*esta nueva entidad. La manada reacciona como manada, y no por cada uno de los individuos aislados. No existe ya el miedo de los animales, la cólera de los animales, sino el miedo y la cólera de la manada. El instinto gregario aventaja al individual. Los hindúes dicen que se desarrolla una «alma-clan», y los ocultistas, un «egregore». La palabra es, desde luego, más erudita, pero equivale a lo mismo y expresa la formación de la entidad «clan».*

**ELKAR/BAKAR**, horregatik izango lirateke formalki simetrikoak.

Horregatik **GU** hitza, **gogoaren** (espirituaren) hitzaren **GO** erroarekin egongo litzateke lotuta, baita ere **god** (Jainkoa ingelesez) eta **goiarekin** eta abar.

Jarraitzen dugu:

*La iluminación en el hinduismo se considera como la unión de la persona con todo el universo. Es decir, el sujeto que experimenta la iluminación se percibe a sí mismo como una parte integrante, y no separado del resto de la existencia, ya que para el hinduismo místico, todo es uno, no existe la dualidad, ni siquiera entre Dios y los hombres. Iluminación es darse cuenta de que estamos unidos a la divinidad, y por lo tanto, a toda su creación. Hinduismo, (Google)*

#### **k) Bizikidetzarako berbak: *ondo esan, musu truk, lagun, legea egin, zintzo***

---

##### **ONDO ESAN**

Inor ondo tratatu duzun adierazteko erabiltzen da. Ondo esateak ondo tratatzearekin lotuta dago, noski.

##### **MUXU-TRUK, AMORE EMAN**

Esateko modu hauek sentsazio onak, maitagarriak sortarazten dituzte. Gizakiontzat askotan korapilatsuak izaten diren “muxu-truk” aritzea eta “amore ematea” honela, maitasunarekin lotuta bigundu egingo lirateke. Oso esateko modu baikorrak eta poetikoak direla esango genuke. Mezu horrek hizkuntzan erroturik dagoen neurrian, horrela ulertzera bideratzen gaitu.



##### **LAGUN**

Lagun hitzak gazteleratik aztertzen badugu esanahi hauek ditu: *individuo, pertsona, amigo-ga, compañero-a*. Honek esan nahi du gure mundu ikuskeran, hau da euskeraz, danok garelara, hasiera batean behintzat, besterik adierazi ezean, lagunak eta adiskideak, pertsonak garen aldetik. Hau izango litzateke orduan harremanak hasteko modu egokia “errugabetasun-presuntzioa” esango genuke. Hau ez da txantxetako kontua, zeren justiziaren oinarria baita eta euskerak ez du honen esanahia auzietara bakarrik murrizten, egunerokotasunean erabiltzen du eta.

Askotan entzuten dugu, zenbat gara? (kantan bezala) eta aprobetxatu nahi dugu zenbat lagun gara?-ren erabilera eskatzeko.

## LEGEA EGIN

Eguneroko edo ohiturazko eginbeharrak bete. Erantzukizunezkoak. Norberari dagokiona behintzat, egin beharrekoa egin, eta gero geroakoak, lagunduko liguke arduradunak izaten eta gauzak behar den bezala egiten. **OHI** partikularekin ere edukiko luke lotura, beraz.

Bizkaieraz asko erabiltzen da hitz egiterakoan, adibidez: *Behar dan legez (behar den bezala)*.

Legez-en beste esanahi bat zerbait egiazkoa dela da, legezkoa dela.

Hortaz aparte legea hitzak ere maitasuna eta errespetua adierazten du, legezalea izatea maitakorra izatea da:

*"Lege andia deutsoi (V), le tiene mucho cariño"; Zer? Senarrari xoroko? [...] Ikasiko didazu azkar zure gizonari zor diozun legea gordetzen. NETx Antz 122. Orotariko*

## ZINTZO

Euskaldunok garrantzi handia ematen diogu **zintzotasunari**, **zin** egitearekin lotzen dugu eta egiarekin, baita emandako hitzarekin ere. Horregatik kontratuak **sinatu** egiten dira.

Comunidades sin estado en la montaña vasca: *"Se instaura entonces un clima de confianza real, en el que las palabras adquieren un peso particular. **Hitza hitz, ala jendea hits**, anuncia la sentencia vasca, "la palabra es la palabra, o la gente es mala". Recordemos que la diosa Mari no soporta el faltar a la palabra. Por lo tanto, el pensamiento vasco antiguo no usaba contratos, ni papeles, ni certificados e incluso en el seno de instancias deliberativas como el batzarre no se levantaban actas.*

## I) Zenbakiak

Esan dugu hizkuntzetan kultura eta jakintza txertatzen direla. Orain arte komunikazio egokiari buruz jardun dugu. Orain matematika pizka bat.

**Zenbakiak:** Zer gertatzen da zenbakiekin? Lehendabizi Redeseko bideoa ikusiko dugu kokatzeko: <https://www.youtube.com/watch?v=g9QIEXSxFfc>

Baieztapen hau egin zuten momentuan pentsatu nuen hau ez zela erabat horrela, aipatzen ari ziren beste hizkuntzetako zenbakiak gure euskerazko **ZU** pertsona-izenordain modukoak zirelako eta burura etorri zitzaidan nola zenbatzen genuen txikitako jolasetan norberatik hasita eta beste lagunekin jarraituz: **NI, ZU, HURA...** Iruditu zitzaidan, agian, hori izango zela hasierako kontatzeko era. Ondorioz, pentsatu nuen, agian eredu hori euskeran, pertsona-izenordain bezela geratuko zela, hau da hasierako era horretan eta gainontzeko hizkuntzetan pertsona-izenordain eta zenbaki moduan.

Felix Zubiagak bere lanetan aipatzen dituen arketipoen arabera honako hauek (N/M) lehenengo arketipoarekin eta (T) bigarrenarekin etorriko liriateke bat.

Castellano	Portugués	Frances	Italiano	Aleman	Inglés	Arabiera	Euskera
Yo, <b>mi</b> , <b>me</b>	Eu, <b>meu</b>	Je, <b>moi</b> , <b>mon</b>	Io, <b>mio</b>	Ich, <b>mein</b>	I, <b>my</b>	Ana	<b>Ni</b>
<b>Tu</b>	<b>Ti</b>	Tu, <b>toi</b>	<b>tu</b>	<b>du</b>	<b>You</b>	Nta/ntza Nti/ntzi	<b>Zu</b>

Castellano	Portugués	Francés	Italiano	Aleman	Inglés	Latin	Indi	Punyabi	Griego	Euskera
<b>Uno</b>	<b>Uno</b>	<b>Un</b>	<b>Uno</b>	<b>Ein</b>	<b>One</b>	<b>uno</b>				<b>Bat</b>
<b>Dos</b>	<b>Dois</b>	<b>Deux</b>	<b>Due</b>	<b>Zwei</b>	<b>Two</b>	<b>Duo</b>	<b>Do</b>	<b>Do</b>	<b>Duo</b>	<b>Bi</b>

Orduan, zer gertatzen zen euskerazko zenbakiekin? Zein ote zen euren esanahia?

Geroago irakurri nuen liburu baten esaten zuten, nola megalitoen garaian harriztar multzo haiek altxatu eta zutitzeko unitate jakin bat erabiltzen zutela, “yarda megalitiko” izenekoa eta hau frogatzen saiatu ziren. Unitate hori oinarri hartuta neurketa sistema oso bat asmatu omen zen eta bere aztarnak gaurdaino iraungo zuten, itxura denez. Eta honako hau pentsatu nuen, antzinako euskaldunak ere neurtzeko sistema bat edukiko zutela eta euren zenbakien izenen esanahiak zerikusia izango zuela horrekin. Eta hau da nire proposamena:

1. **Batak**, puntua esan nahiko luke, **UNITATEA** •, edozein unitate-multzo barne. Eta bat hori soinu batekin lotzen dut, hau da pultsazio batekin.

Funtzio hau betetzen duten zenbait hitzek beren izenean **bata** daukate adibidez:

*Bakar, batu, batasun, batzar*; erderaz ere badaude adibideak: *batallón, batería; batiburrillo*; (*barru; vacío*), hauek ontzi (kontenedore) gisa.

2. **Biak**, puntu batetik beste bateraino doan bidea izango litzateke, hau da **LUZERA** adieraziko luke eta baita ere bikoizteko funtzioa, adibidez berregin, birsortu. ●—●

Funtzio hau betetzen duen zenbait hitzek beren izenean **bia** daukate adibidez:

*Bide, ibili, bidaia, bidali, bidaso (arroyo), ibai; bilatu, bihurtu, bildu; bider, ber/bir; vida, bizitza* (bizitza bidaia bat da).

3. **Hiruak BOLUMENA** adieraziko luke, hau da, dimentsio tridimentsionala (luzera, zabalera, altuera), beraz, **IRUDIA**. ▲

Hitz hauetan beste batzuren artean ere ikusten dugu: *irudia, irudimena* (ikuskerak espaziala), *irun, hiri, hirigintza*, gaztelerazko *ilusión*...

4. Lauak, bi bider bi, hau da, **AZALERA**. Zeren azalera, area, biaren, (hau da dimentsio linealaren), bider biaren emaitza baita oinarrian. □

Hitz askok adierazten du kasu hau:

*Lau(a), lautada, laska, apal(a), azal(a); lasai; plaza, plano, ilano, plato, pala, lavar*, Geroago irakurri nuen liburu baten esaten zuten nola megalitoen garaian harriztar multzo haiek altxatu eta zutitzeko unitate jakin bat erabiltzen zutela eta hau frogatzen saiatu ziren

(*en las piedras planas*), *pala, palma (mano) etab.*

5. **Bostak, bortzak, BOROBILTASUNA, ESFERA**

Zergatik da bosta borobila/esfera? Ba atzamarrekin kontaktatzen dugunean bosgarrenarekin zikloa amaitzen delako, azkena lehenengoarekin lotzen da eta borobila, oboa gauzatzen da; gainera hitzak berak ematen digu informazioa, bortzek -bor- erroa daramalako, adibideak:

*Borobil; bola-bolo, erderazko bollo, boca* eta abar eta abar.

Antzina, bat, bir, hirur, laur, bortz esaten omen zen. Nere iritziz **R** hori eragilea izango litzateke; **BATEan**, ez legoke eta besteetan bai, zeren beste hauek funtzio geometriko bat betetzeko erabiliko lirateke.

Harrezkero hau irakurri genuen eta iruditu zitzaigun ez gindoazela bide txarretik:

René Guénon ha escrito extensamente acerca de **la desconexión** en los tiempos modernos entre los principios metafísicos primordiales y lo que él llama las ciencias

profanas: "...La mayor parte de estas ciencias, incluso en la medida en que todavía corresponden a alguna realidad, representan no más que simples residuos degradados de algunas de las antiguas ciencias tradicionales."

Guénon explica que los números han perdido su significado real. Afirma que nuestros contemporáneos son ignorantes de lo que realmente son los números y entienden los números sólo en su sentido estrictamente cuantitativo, reduciendo el número de, "cálculos en el sentido más estricto de la palabra, es decir, a una mera colección de procedimientos más o menos artificiales, que en definitiva sólo son valiosos con respecto a las aplicaciones prácticas a las que dan lugar."

Según Guénon, sólo la forma geométrica puede legítimamente considerarse que constituye el verdadero cuerpo de un número.

Esto está en, "acuerdo con el hecho de que toda "realización" necesariamente implica una 'especialización'."

La ciencia que es exclusivamente cuantitativa se distancia cada vez más de la realidad. (nota de V. Susan Ferguson)

Zantzu bat besterik ez da baina agian bide bat litzateke euskera zientzia ikuspuntutik aztertzen hasteko.

Andrés Ortiz Osésekin lehen aipatu liburuan dio:

*Ver el mundo mitológicamente parece querer decir verlo acientíficamente, mas no es así. Como ha mostrado la Hermenéutica Gnóstica de Eranos, y más en concreto G. Durant, no solamente se está tratando de reinterpretar la física a partir de modelos mitológicos clásicos (cfr. el famoso libro El Tao de la Física) sino que la propia Ciencia está echando mano actualmente, por encima de las viejas categorías filosófico-mecánicas o racionalistas, de las construcciones míticas: tal es el paradójico y relevante caso de la concepción actualizada por las ciencias de las categorías de espacio y tiempo, reinterpretadas científicamente tal y como lo hiciera la arcaica mitología, al concebir el espacio eco biológicamente y el tiempo cualitativamente como reversible.*

Eta amaitzeko beste adibide bat:

#### **m) Aditza azkenean jartzea**

---



Euskerazko perpausa batean, aditzak adierazten digun akzioa jakin aurretik, egoeraren elementu guztiak zeintzuk diren ezagutzera behartuta gaude. Era horretan mezu-hartzailearen arreta amaiera arte izatea lortzen du gure hizkuntzak, hau da, informazio guztia eduki arte. Beraz, euskera **egiaren** alde jotzen du bere egituran; ondorioak atera aurretik behintzat, esan dugun moduan, elementu guztiak ezagutzera behartzen gaitu eta. Baita informazioa igortzen duenari, behar den arreta izanez, merezi duen begirunea ematera.

Euskera bere mito guztiakin batera garatu da eta ez da kasualitatea izango gure Marik gezurrik onartu ez izatea.

Beraz, euskerak, aztertu ditugun kontuekin eta oraingo honekin batera, zuzenak izaten laguntzen gaitu harreman ona izateko gure "**Damarekin**".